

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Olanoren emazteak bere izena du



Eulalia Abaituaren *Emakumeak merkatuan* argazkia. 1990ean Alberto Schommer argazkilariak zera esan zuen Abaituaren lanari buruz: "Bere herria maite duen eta interpretatzen duen begi sentikorra da (...) benetako erreportaria". Gainera, bilbotarraren purutasun morfologiko eta etnografiko eta naturaltasuna nabarmendu zituen.

BILBO, 1906. Elespuru anaiek Aristides Artiñanoren *Reseña de las fiestas de Elorrio en honor del Beato Valentín de Berrio-ochoa obispo y mártir* lana argitaratu zuten. Lanak argazki sorta bat ere bazuen eta, argazkien oinean, "Fotografía de la Sra. de Olano" sinadurara. Juan Narciso Olano lesakarraren emazteak Eulalia Abaitua zuen izena.

1853ko urtarrilaren 25ean jaio zen Bilbon, eta María Elvira Juliana izenez bataiatu zuten. Baina Eulalia ama erditu eta gutxira hil zen, eta haren omenez alabari ere Eulalia esaten zioten. Luis Abaitua aita saleroslea izanik, haurtzaroa han eta hemen eman zuen Eulaliak. Ustez, ikasketak Bartzelonako Sarrià auzoko Sagrado Corazón de Jesús ikastetxean egin zituen, baina bertako artxiboa 36ko Gerran suntsitu zuten, horren frogarik ez dago. Bai ordea, 1871. urtean Ingalaterran bizi izanarenak, Liverpoolleko Everton auzoan. Han ezaugu zuten Juan Narciso Olano.

1878an senar-emazteak Euskal Herrira itzuli ziren, Begoñara hain

zuzen. Basilikaren ondoan estilo ingelesko Pinuaren Jauregia eraiki zuten, eta etxe hartako sotoan Eulaliak argazki laborategia prestatu zuen. Egoera ekonomiko bikainari eta bizitza osoan egindako bidaiei esker, garai hartan emakumeentzat ezohikoa zen jardueran trebatu zen, argazkigintzan; Euskal Herriko lehen emakume argazkilaritzat jotzen da. Erretratuak Venezian, Erroman, Marokon, Kretan... egin zituen, baina lanik bikainenak egiteko ez zen urrutira joan. Abaituaren argazkirik onenek bere inguruko pertsona anoniemoak eta eguneroko eszenak erakusten dituzte.

Eulalia Abaitua 1943an hil zen, 90 urte zituela, baina bere lana ahaztuta egon zen Bilboko Euskal Museoak erosi zuen arte. Egunotan, eta maiatzaren 29ra arte, bilbotarraren 55 argazki eta 161 erreproduktzioz —gehienak ezezagunak— osatutako proiektzioa ikus daiteke. Erakusketak *Eulalia Abaitua argazkilaria (1853-1943)* du izena.

Arrastoak

Google, museorik zehatzena

GOOGLE bilatzaile ezagunak, artea birtualki hurbiltzeko, www.googleartproject.com gunea osatu du. Bertan, 385 museo eta galerietako —esaterako, Londreseko National Gallery, New Yorkeko MOMA eta San Petersburgoko Hermitage— eta 486 artistak egindako mila artelanetik gora bildu dituzte bereizmen handian. Gainera, hamazazpi koadro gigapixeletan digitalizatu dituzte: argazki bakoitzak 14.000 milioi pixeleko bereizmena du, eta beraz kamera arrunt batek baino 100 aldiz xehetasun handiagoa eskaintzen du. Galeriak bisitatu ahal izateko 360 graduko Street View teknologia baliatu dute. Hori guztiari esker, erabiltzaileak bere bilduma osa dezake.



James McNeill Whistlerren *Portzelanaren herrialdeko printzesa*.